

UDALEKU IREKIAK 2021 **INFORMAZIO OROKORRA ETA ARAUDIA**

1. Norentzat: 4 eta 10 urte bitarteko umeentzat (2011-2017).
2. Izena emateko Ametx txartela **UME TXARTELA** bezala **aktibatuta** izatea **derrigorrezkoa** da.

3. **2 hamabostaldi** eskaintzen dira **aukeran**:

1. hamabostaldia: ekainaren 21etik uztailaren 2ra
2. hamabostaldia: uztailaren 5etik 15era

Ordutegia: 9:00 - 14:00

*Zaintza zerbitzua 8:00 - 9:00

* **Ordutegi hauek aldaketak izan ditzakete programaren barruan egiten diren ekintza desberdinen arabera (Irteerak, etab.)**

4. Bi hamabostaldi bietan apuntatzeko aukera emango da. Ume gehiagori udalekuetan parte hartzeko aukera emateko, hamabostaldien lehentasuna ezarriko da. Zozketa egiteko lehentasunak kontuan izango ditugu. Zozketan ume bati lehenengo lehentasuna tokatzen bazaio, bigarren aukeran itxaron zerrendan egongo da.
5. Onartuen zerrendetan lehentasuna izango dute Amorebieta-Etxanon erroldatuek. Horrela, eskari-kopurua eskainitako plaza-kopurua baino handiagoa bada, kanpoko biztanleak azkenak izango dira zerrendetan.
6. **Plaza mugatuak.** Matrikulazio gehiegi izan ezker zozketaz esleituko dira plazak. Plazen onarpena **SMS bidez** jakinaraziko da **maiatzaren 7an**.
7. NEBA-ARREBAK: Zozketa egiterakoan zenbaki bakar batekin parte hartuko dute izena ematerakoan batera egin badute
8. **Izena emateko epea: apirilaren 19tik maiatzaren 5era** Gazte Informazio Bulegoan.
Ordutegia: 10:00 - 13:00 eta 17:00 - 20:00.
9. Ordainketa kreditu txartelarekin **egingo da ezartzen den epean, zozketa egin ondoren plaza esleituta dagoelarik.**
10. Prezioak eta deskontuak.
 1. hamabostaldia: ekainaren 21etik uztailaren 2ra : 80€
 2. hamabostaldia: uztailaren 5etik 15era :72€

Deskontuak: Indarrean dagoen Prezio ordenantzaren arabera.

11. **Itzulketak.** Izena emateko epea bukatuta ez da dirurik itzuliko hurrengo egoeretako bat ematen ez bada (beti ere idatziz eskatuta eta dagokion dokumentuak aurkeztuta): **a)** gaixotasun edo istripu larria (medikuaren ziurtagiria) edo **b)** udalekuetara etortzea eragozten duten ustekabeak edo beharrizan larriak, justifikatuta. Behin udalekuak hasita diru itzulketa arazo larriren bat suertatzen bada baino ez da bueltatuko, eta disfrutatu ez diren egunen kopuru proportzionala soilik.
- 11) Udalekuak Larrea ikastetxeko egoitzetan eta udal kirol eta kultura egoitzetan garatuko dira onartzen den programaren arabera.
- 12) Informazio batzarra. Ekainean izango da eta bertan udalekuetako programaren zehaztasun guztiak emango dira: ekintzak, irteerak, ekarri eta jakin beharrekoak, eta abar.
- 13) Deialdi honetan ematen diren informazioa eta datu pertsonalak Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Legearen babespean egongo dira.
- 14) Beharrizan bereziak dituzten umeak. **6 plaza daude**, horrek baino gehiago izango balira zozketa batez esleituko dira plazok. Minusbaliotasun psikikoa duten umei udalekuetan parte hartzeko 2 urteko marjina emango zaie.